



Euskara Abian

Lehen Hezkuntzarako 4. mailarako Euskara Abian liburua Zubia Editoriala, S. L. ren eta Santillana Educación, S. L. ren Hezkuntza Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo Uriarteren** eta **Teresa Grence Ruizen** zuzendaritzapean sortu, diseinatu eta gauzaturiko talde-lana da.

Liburu honen prestatze- eta argitaratze-lanean honako talde honek esku hartu du:

TESTUA

Idoia Aranberri

Joseba Santxo

Ainhua Basterretxea

IRUDIAK

Alex Macho

Enrique Morente

EDIZIOA

Ainhua Basterretxea

Joseba Santxo

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Joseba Santxo

Maite López-Sáez

Liburu honetako ariketak ezin dira inola ere liburuan bertan egin.
Ariketetan proposatzen ditugun taulak, eskemak eta gainerako
baliabideak ikasleak koadernoan egin beharrekoen ereduak baino ez dira.

OINARRIZKO GAITASUNAK

Liburuan zehar, **HEZIBERRI**ren arabera oinarrizko gaitasunen ikurrak ikusiko dituzu zenbait jardueraren ondoan. Ikur horiek kasu bakoitzean zer gaitasun lantzen den adierazten digute.

ARLOKO GAITASUNAK



Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna



Matematikarako gaitasuna



Zientziarako gaitasuna



Teknologiarako gaitasuna



Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna



Arterako gaitasuna



Mugimendurako gaitasuna

ZE HAR-GAITASUNAK



Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna



Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna



Elkarbizitzarako gaitasuna



Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna



Izaten ikasteko gaitasuna

Edukien mapa

Unitateak			Irakurgaia	Hizkuntzaren erabilera	Ortografia
1	Gogoan indarra <i>Flashmob-a</i> 📖	6	Literatura-testua: <i>Ni ez naiz normala</i> 📖 8	Hitzen ordena 12	Letra larria 14
2	Mendiaren mende <i>Ez nekeak...</i> 📖	22	Literatura-testua: <i>Baltzolako sugoi</i> 📖 24	Zenbat? 28	-Np-, -nb- 30
3	Zenbat buru, hainbat liburu <i>Durangoko azoka</i> 📖	38	Literatura-testua: <i>Liburu-zainaren bahiketa</i> 📖 40	Izenordainak 44	H letra 46
4	Munduan zehar <i>Dantza-jaialdia</i> 📖	54	Azalpen-testua: <i>Inuitak</i> 📖 56	Determinatzaileak 60	S, x, z 62
5	Dringilindron <i>Jaiotza-lehiaketa</i> 📖	70	Literatura-testua: <i>Gabon-ipuina</i> 📖 72	Nolakoa? Nola? 76	Puntua, bi puntuak, eten-puntuak 78
LEHEN HIRUHILEKOAREN BERRIKUSKETA 86-87. Entzungaia: <i>Gabonetako argiak</i> 📖					
6	Taula gainean <i>Entsegua</i> 📖	88	Literatura-testua: <i>Mandazain inozoa</i> 📖 90	Aditza: Nor 94	tt, dd, ñ, ll 96
7	Txuku-txuku-txu! <i>Hurrengo geltokia...</i> 📖	104	Literatura-testua: <i>Metroko abentura</i> 📖 106	Aditza: Nor-Nork 110	Ts, tz, tx 112
8	Saltzen, saltzen... <i>Besta giroan</i> 📖	120	Azalpen-testua: <i>Askari onena...</i> 📖 122	Aditza: Nor-Nori 126	A itsatsia 128
9	Begira hor! <i>Txangoa</i> 📖	136	Literatura-testua: <i>Ttotte</i> 📖 138	Aditza: Nor-Nori-Nork 142	Marra hitz elkartuetan 144
10	Oihaneke lagunak <i>Gepardoaren berri</i> 📖	152	Azalpen-testua: <i>Hakuna matata</i> 📖 154	Aditzaren berrikusketa 158	H letra 160
BIGARREN HIRUHILEKOAREN BERRIKUSKETA 168-169. Entzungaia: <i>Gutun kontakatilua</i> 📖					
11	Nahi baduzu jan... <i>Amari laguntzen</i> 📖	170	Literatura-testua: <i>Tom margolari-lanetan</i> 📖 172	Ahalera eta ezintasuna 176	Koma eta puntu eta koma 178
12	Fikzio erreala <i>Bazatoz zinera?</i> 📖	186	Literatura-testua: <i>Txanogorritxo eta otsoa</i> 📖 188	Denbora nola adierazi 192	S, z, x, ts, tz, tx 194
13	IKT, zorionen ate! <i>Leire 3.0</i> 📖	202	Azalpen-testua: <i>Robotak</i> 📖 204	Neurriak nola adierazi 208	H hitz barruan 210
14	Zaharrak berri <i>Aspaldiko kontuak</i> 📖	218	Azalpen-testua: <i>Marco Polo</i> 📖 220	Adierazpenak eta aginduak 224	Marra elkarriketan 226
15	Kresalaren usain <i>Uda-giroan</i> 📖	234	Literatura-testua: <i>Maskorretan</i> 📖 236	Galderak eta harridura 240	Galdera eta harridura-markak 242
HIRUGARREN HIRUHILEKOAREN BERRIKUSKETA 250-251. Entzungaia: <i>Sekulako abentura</i> 📖					

Harremanetan	Egiten jakin Testu-tipologia	Lexikoa	Literaturaz gozaten	Amaierako jarduerak
<i>Nire lehengusina Mari</i> Deskribatzea 15	Azalpen-testua 16	Hitz polisemikoak 18	<i>Neure buruari begira</i> 19	<i>Musika-izarrak</i> 20
<i>Astebururako planak</i> Nahiak adieraztea 31	Ibilbideak 32	Atzizkiak: -tasun, -keria, -kuntza, -kizun. 34	<i>Larrazkeneko altxorak</i> 35	<i>Edume Pasaban mendizalea</i> 36
<i>Lan gogaikaria</i> Limurtzea 47	Gertakariak 48	Eremu semantikoa 50	<i>Igarkizuna</i> 51	<i>Luxorrera bidean</i> 52
<i>Paradisu ezkutua</i> Lekuak deskribatzea 63	Albistea 64	Atzizkiak: -ar, -tar, -dar 66	<i>Bat, bat, bat</i> 67	<i>Ezusteko galanta</i> 68
<i>Bai? Nor da?</i> Iritzia ematea 79	Galdetegia 80	Esapideak 82	<i>Gabon-koplak</i> 83	<i>Kaleko inkesta</i> 84

ERANSKINA: Aditz-taulak, erakusleak, zenbatzaileak...

<i>Zuzen-zuzenean</i> Egoerak azaltzea 97	Gutuna 98	Interjekzioak 100	<i>Amona isildu da</i> 101	<i>Marrazki bizidunak</i> 102
<i>Piratak</i> Azalpenak ematea 113	Iragarki laburrak 114	Hitz homonimoak 116	<i>Nire hiriko poemak</i> 117	<i>Eskolara oinez</i> 118
<i>Nagusiak agindu...</i> Aginduak ematea 129	Sukaldaritza-errezeta 130	Atzizkiak: kantitate- atzizkiak 132	<i>Lamikizko sukaldaria</i> 133	<i>Galde, baina ez debalde</i> 134
<i>Piztia harrigarria</i> Deskribatzea 145	Araudia 146	Onomatopeiak 148	<i>Xoria kantari</i> 149	<i>Txoriak txapelean</i> 150
<i>Kizkur gaixoa!</i> Gogo-aldarteak 161	Eskema 162	Maileguak I 164	<i>Gizonak menderatu zuen lehoia</i> 165	<i>Animalien solasa</i> 166

ERANSKINA: Aditz-taulak, deklinabidea...

<i>Arrazoa nork ote?</i> Argudiatzea. 179	Ipuina 180	Hitz paronimoak 182	<i>Zergatik, aitona?</i> 183	<i>Ligiko zubia</i> 184
<i>Lanean fin-fin</i> Prozesuak azaltzea 195	Ipuinetako pertsonaiak 196	Atzizkiak: joera- atzizkiak 198	<i>Haurrak ikas zazue</i> 199	<i>Super heroia</i> 200
<i>Eskerga, benetan!</i> Neurriak adieraztea 211	Jarraibideak 212	Atzizkiak: objektuak eta tresnak 214	<i>Erlojuarena</i> 215	<i>Non ote dago museoa?</i> 216
<i>Zer dela-eta?</i> Kausak eta ondorioak 227	Elkarriketak 228	Esapideak 230	<i>Kontrapas</i> 231	<i>Kaixo, aspaldiko!</i> 232
<i>Egunen batean...</i> Iragarpenak 243	Iritzi-gutuna 244	Esaera zaharrak 246	<i>Joxe eta Ana</i> 247	<i>Oporretan goaz!</i> 248

ERANSKINA: Aditz-taulak, deklinabidea...

1

Gogoan indarra



Mintzamina

- 1** Deskribatu argazkiaren lehen planoan ageri den neska. Zertan ari da?
- 2** Zure ustez, non du neskato horrek mugimendu-murritzapena?
 - Besoetan.
 - Hanketan.
 - Gorputz osoan.
- 3**  Zer jarrera du argazkiko neska horrek? Gozatzen ari dela uste duzu? Zergatik?

Entzumena



4 Entzun *Flashmoba* elkarrizketa eta erantzun.

- Zertarako egingo dute flashmoba?
- Nork hartuko du parte?
- Non jarriko dute grabatutako bideoa?

5 Azaldu. Zer da flashmob bat? Horrelako batean parte hartuko zenuke?



Irakurmena

6 Irakurri alboko testutxoa eta erantzun.

- Zer motatako testua da?
- Zer eskatzen da bertan?
- Zertarako?
- Zer egin behar dute interesatuta daudenek?
- Zure ustez, nolako neska-mutilak aukeratuko dituzte iragarkirako?

Freskagarri baten iragarkia egiteko 6-10 urte bitarteko neska-mutilak behar ditugu, arraza eta itxura guztietakoak.

Filmaketa urriaren 27an eta 28an izango da.

Parte hartu nhi baduzue, bidali datuak eta argazkia honako helbidera: burbucasting@gmail.com



7 BALIOETAN HEZTEA. Geure itxura zaintzen dugu.

Garrantzitsua iruditzen zaizu itxura ona izatea eta zeure burua apaintzea? Zer egiten duzu itxura ona izateko?



Idazmena



8 Idatzi e-posta, goiko iragarkiari erantzunez.

- Jarri hartzailearen eta igorlearen helbidea, baita mezuaren gaia ere.
- Eman zeure buruari buruzko datuak.
- Azaldu pixka bat zer itxura duzun eta nolakoa zaren.

EGITEN JAKIN



Azalpen-testuak

- Zertarako dira azalpen-testuak?
- Non agertzen dira? Eman adibideak.

Azalpen-testuek gai bati buruzko informazioa ematen dute. Bertan datu zehatzak azaltzen dira eta informazioa ordenan ageri da. Baietz gai izan bat idazteko!





★ Ni ez naiz normala

Ni ez naiz normala. Nik bost atzamar ditut eskuineko eskuan, horretan nahiko normala naiz, baina... Ezkerreko eskuan, sorpresa!, sei atzamar ditut. Betidanik izan ditut sei hatz; jaio nintzenetik. Hala esan didate, behintzat. Nik ez dut gogoratzen. Inork ez du bere jaiotze-eguna gogoratzen. Eta ni ere, horretan, normala naiz. Baina amak esan dit medikuak sei atzamarrekin jaio nintzela ikusi zuenean, nireganagana gerturatu zela bisturi batekin, seigarren atzamarra mozteko. Eskerrak amak esan ziola ezetz eta ezetz, eta utz zezala bake santuan nire seigarren atzamarra. Eskerrak ama ausarta den, eskerrak mediku horren bisturiaren aurrean ez zen **kikildu**. Eta eskerrak diot, zeren seigarren atzamar horrek botere magikoak ematen baitizkit. Botere magikoak, bai. Badakit zaila dela sinesten, badakit ez dela normala, baina lehen ere esan dizuet ni ez naizela normala. Nire seigarren atzamarrak antenatxo baten moduan egiten du lan. Ez telebista-antena edo telefono-antena baten moduan, ez. Beste antenna mota bat da nire seigarren hatza. Nik nire ezkerreko seigarren hatzarekin besteen pentsamendua irakur dezaket. Eta ez dakit zuei zer irudituko zaizuen, baina, nire ustez, besteen pentsamendua irakurtzea inportantea da oso. Funtsezkoa.

Adibide bat jarriko dizuet, uler dezazuen.

Aita sartzen da bat-batean nire logelan, eta esaten dit:
–Paula, goazen jertse berri bat erostera, ordu erdi batean egingo dugu, di-da, eta parkera joan zaitezke gero.

Orduan, nire seigarren atzamar txikia lanean hasten da, eta aita bene-benetan eta sakon-sakon pentsatzen duenari **antzematen** dio eta niri berehala etortzen zait aita bene-benetan eta sakon-sakonean pentsatzen ari dena:

–Jertsea ez ezik, pare bat kamiseta, dozena erdi galtzerdi, pare bat edo hiru kulero ere erosiko ditugu, atera garela aprobetxatuta. Gero, farmaziatik pasatuko gara eztularen kontrako xarabea bukatu egin zaigu-eta, eta pilak ere behar ditut, irratorako, eta etxerako bidean Eduren kafetegian gelditu gaitezke. Aspaldi ez dut nire laguna ikusi eta gauza ugari ditugu elkarri kontatzeko...

–Baina, aita, nik parkera joan nahi dut...

Zer gertatuko den jakin arren, azkenean, berokia hartu, aitarekin atera, eta bi jertse erosi, eta hiru kamiseta, eta barruko arropa pila, eta gero farmaziatik pasatu, xarabea erosteko, eta pilak ere erosi

burdindegia batean, eta azkenean txokolate bat hartu Eduren kafetegian, Edu eta aita hizketan ari diren bitartean. Horixe egiten dut. Eta, nire hatzak aurreratu bezala, parkera joateko berandu egiten zait eta etxean geratu behar izaten dut.

Botereak izan, baditut, baina ez dute edozer gauzatarako balio.

KATIXA AGIRRE

Paularen seigarren atzamarra (moldatua)

kikildu: beldurtu, adoregabetu.

antzeman: igarri.

burdindegia: erremintak eta metalezko tresnak saltzen dituen denda.



Irakurgaia lantzen

ULERMENA

1 Erantzun galderei koadernoan.

- Nor da ipuineko protagonista?
- Zertan da normala?
- Zertan da berezia?

2 Azaldu esaldi hauek egia ala gezurra diren. Zuzendu gezurrak.

- Jaio zenean, medikuak seigarren atzamarra moztu nahi izan zion Paulari.
- Bere aitak aurre egin zion medikuari, eta ez zion moztu.
- Hatz horri esker, botere bereziak ditu Paulak.
- Antena modukoa denez, nahi duena ikus dezake Paulak telebistan.
- Daukan botereak ez dio edozertarako balio Paulari.

★ 3 Azaldu testutxo labur batean Paulari buruz dakizun guztia.

EGITURA

4 Adierazi. Testuko zein ataletan gertatzen dira ekintza hauek: hasieran, erdialdean ala amaieran?



★ 5 Irakurri eta idatzi labur-labur aitak esandakoaren ostean gertatu zena.



Goazen jertse berri bat erostera, ordu erdi batean egingo dugu, eta parkera joan zaitezke gero.

- Zer egin zuten Paulak eta aitak?
- Zer gertatu zitzaion azkenean Paulari?

LEXIKOA

6 Lotu esanahi bera duten hitzak.

normala	■	hurbildu
gerturatu	■	igarri
ausarta	■	beldurtu
kikildu	■	arrunta
antzeman	■	adoretsua

7 Aukeratu *di-da* esapidearen esanahi bera dutenak.

- ☐ Salto batean. ☐ Salto-saltoka.
- ☐ Amen batean.

8 Idatzi esaldi bat esapide hau erabiliz.

Bake santuan utzi.

9 Aukeratu bikote bakoitzeko hitz zuzena eta idatzi hutsune egokian.

hatz / hats

ezker / esker

hari / ari

- Paulak bost  zituen eskuineko eskuan; bestean, aldiz, sei.
- Gaur egun, botere magikoak ditu amaren ausardiari .
- Paula txokolatea hartzen zegoen bitartean, aita eta Edu berriketan  ziren.
- Idatzi esaldi bana erabili ez dituzun hitzekin.

ZURE EKARPENA

★ 10 Idatzi Paularenaren antzeko testu bat, zeure burua aurkeztuz.

- Azaldu nolakoa zaren, non bizi zaren...
- Kontatu txikitako pasadizoren bat.
- Jarri izenburua zeure idazlanari.



Zenbat bizarra mozteagatik?

Itxura arduragabeko gazte bat ileapaindegian sartu da. Ilea oso luze dakar. Ilepaintzaileari haxe galdetu dio:

- Egun on, jauna! Zenbat ordaindu behar da ilea mozteagatik?
- Hamasei euro.
- Ez da merkea! Eta bizarra mozteagatik?
- Sei euro.
- Bada, buruko bizarra moztu, mesedez.



1 Irakurri testua eta erantzun galderei esaldi osoak erabiliz.

- Zenbat ordaindu behar da ilea mozteagatik?
- Merkea iruditu al zaio gazteari?
- Zer galdetu dio gero ileapaintzaileari?
- Zure ustez, zer egingo du ileapaintzaileak?

2 Ordenatu hitzak eta idatzi esaldiak.

- baratzeko / Aitonaren / piko / ematen / pikondoak / ditu. / ederrak
- irakasleak / eta / ikastetxeko / ikasleak / Barandiaran / jatorrak / dira. / oso
- atzo / lagun / Donostiako / hiru / zitzaizkigun. / bisitan / etorri
- dituzte. / neska / taldean / lau / saskibaloia / Ikastetxeko / behar / hartu /
- aitari / gorpila / motorraren / Mutil / gure / honek / zion. / lagundu / jator / konpontzen

3 Bukatu esaldiak koadernoan, zeuk nahi duzun eran, baina aditza beti amaieran jarriz.

- Gure irakasleak...
- Etxe aurreko parkea...
- Zuhaitz zahar hori...
- Zure lagunak...
- Mirenek eta Itsasok...

HITZEN ORDENA

- **Hitzen ordena normala** euskaraz haxe da:
 - *Paulak eskuan sei hatz ditu.*
- **Hitz bat indartu** nahi dugunean, aditzaren aurrean jartzen dugu:
 - *Paulak **eskuan** ditu sei hatz. (NON)*
 - *Eskuan sei hatz **Paulak** ditu. (NORK)*

4 Eman ezezkoan esaldi hauek.

- Zure gelako neska-mutilak oso jatorrak dira.
- Zinean ikusi nuen filma asko gustatu zitzaidan.
- Bihar euria egingo du kostaldean.
- Zure neba txikiak negar egiten du egunero.
- Asteburuan mendira joango zarete gurasoekin.

5 Zuzendu esaldi hauetako ordena.

- Txakurrak ez nahi du gurekin kalera etorri.
- Nik uste dut ez hori egia dela.
- Lagunak ez idatzi dit gutunik.
- Gu ez enteratu gara horretaz.
- Larunbatetan ni ez jaikitzen naiz goiz.

6 Idatzi galderak koadernoan, adibidean bezala.

- Postariak gutun bitxi bat ekarri digu gaur etxera.
 - *Zer ekarri digu postariak gaur etxera?*
- Postariak gutun bitxi bat gaur ekarri digu etxera.
- Postariak gutun bitxi bat etxera ekarri digu gaur.
- Postariak ekarri digu gutun bitxi bat gaur etxera.
- Postariak guri ekarri digu gutun bitxi bat gaur etxera.

7 Berridatzi elkarrizketa koadernoan, hitzak behar diren moduan ordenatuz.

- Kaixo, ni Maialen naiz. Zu nor zara?
- Naiz Brian eta nator Australiatik.
- Eta zertara etorri zara Euskal Herrira?
- Naiz etorri oporretan eta egitera surfean.
- Gustatzen zait asko aritzea surfean.
- Hara! Niri ere asko gustatzen zait!
- Duzu nahi surfean egin nirekin?
- Jakina! Oraintxe bertan joango gara, ezta?
- Ohola ez ekarri dut. Geratuko gara arratsaldean?
- Bai. Arratsaldera arte, orduan.

HITZEN ORDENA

- **Ezezko perpausetan**, ordena berezia izaten da: ez hitzaren ondoren aditza jartzen da.
- *Matematikako irakaslea ez da etorri.*



-  **1** Irakurri testua eta bilatu izen bereziak. Ondoren, kopiatu koadernoan.



Egunpasa polita

Igandean Donostian egon ginen Sare, Imanol, Deñe eta laurok. Gurasoekin joan ginen eta primeran pasatu genuen. Kontxako hondartzan egon ginen eta Santa Klara uhartea ikusi genuen bertatik. Txillidaren Haizearen orrazia eskulturari argazki piloa atera genizkion. Alde Zaharreko Joxemari jatetxean bazkaldu genuen eta arratsaldean Anoetara joan ginen, Errealaren partida ikustera. Hurrengo batean, plana errepikatu behar dugu, baina Aitziberri eta Josuri esan behar diegu gurekin etortzeko.

► Izen bereziak:

- 2** Lotu izen bereziak izen arrunt egokiekin eta idatzi esaldiak.

Bidasoa	herria
Xapi	esploratzailea
Maeztu	jauregia
Orhi	ibaia
Manuel Iradier	mendia
Miramar	katua

- 3** Kopiatu esaldiak koadernoan, letra larria behar den tokian idatziz:

- gurasoen jatetxea durangoko goienkale kalean dago eta usabiaga erretegia du izena.
- paketea jokinen okindegian batu behar dugu, izeba mariasunek utzi digu bertan.
- urtero bezala, artisauen azoka foruen plazan jarriko dute, udaletxearen aurrean.
- goiatz, uxue eta xabier arabakoak dira eta laudion bizi dira. haien lehengusuak, ane eta koldo, berriz, bizkaian bizi dira, orozkon.
- Amak merke supermerkatuta bidali nau gernikako piperrak eroatera.

LETRA LARRIA

- Letra larria **testu hasieran** eta **puntu ostean** erabiltzen da:
► *Kaixo. Zer moduz?*
- Izen bereziekin** ere erabiltzen da: pertsona-izenak, toki-izenak...
► *Gure osaba Mikel Ean bizi da*
- Ez da erabiltzen** izen berezi horiei dagozkien izen arruntak:
► *Mediterraneo itsasoa, Artaza jauregia, Ane Mujika alkatea...*



1 Entzun Nire lehengusina Mari testutxo eta adierazi esaldi hauek egia ala gezurra diren. 🔊

- Lehen aldia zen mutikoak lehengusina ikusiko zuela, eta ezagutzeko irrikan zegoen.
- Mari Estatu Batuetatik zetorren, Dakota izeneko herrialde batetik.
- Neskatoak opari eder-ederra ekarri zion Euskal Herriko lehengusuari: skate bat.
- Ikusi zuenean, ezusteko galanta hartu zuen mutikoak eta zapuztuta gelditu zen.
- Hala ere, uda-bukaera lehengusinarekin pasatzea itzela izango zela pentsatu zuen.



2 Adierazi. Hauetako zeinek daramatza txirikordak?



- Zer darama bestea?

3 Entzundakoan oinarriturik, osatu Mariren deskribapena eta egin marrazkia koadernoan.

Marik farfailez beteta zeraman, kolorezko bat buruan eta eta zintzilikario piloa. Ilea zuen, bitan bereizia; begiak ere , harroak oso. Argi zegoen: lehengusina zen.



4 Deskribatu zure ikaskide bat, ea gelako beste neska-mutilek nor den igartzen duten.

- Nolako itxura du?
- Nolako izaera du?
- Zer egiten du? Zer gustatzen zaio?





Tatuajeak

Tatuajeak gaur egungo moda direla pentsatzen duten pertsonak daude, baina azken urteotan moda bezala nagusitu badira ere, duela milaka urte existitzen dira. Tatuajeak azalean egindako orbanak dira, koleztatutako substantziez eginak eta azalean gelditzen direnak betiko.

Historian zehar eta tokien arabera, tatuajeek helburu desberdinak izan dituzte. Tatuajeen jatorria Polinesiako uharteak izan zirela pentsatzen da. Han, zenbat eta tatuaje gehiago izan orduan eta errespetu gehiago merezi zuten. Tatuajeak gerretan aurkariak beldurtzeko ere erabiltzen zituzten.

Antzinako Egipton sinbolo gisa egiten zituzten, gehienbat emakumeek, funtzio magikoa eta babeslea zutela sinisten zutelako.

Ameriketako indiarrek, berriz, haurtzarotik heldutasunera heldu zirela adierazteko egiten zituzten tatuajeak.

Grezian eta Erroman gaizkileak markatzeko eta begi-bistaz nor ziren jakiteko erabiltzen ziren.

Ekialdeko kulturaren bestalde, guk gaur egiten dugun gisan, gorputza edertzeko soilik erabiltzen ziren.



1 Irakurri testua eta erantzun koadernoan.

- Nolako informazioa ematen zaigu testuan tatuajeei buruz?
 - ☐ Zer diren eta nola egiten diren azaltzen zaigu.
 - ☐ Zer diren eta zertarako erabili izan diren azaltzen zaigu.
- Nola ageri da informazioa?
 - ☐ Era nahasian, irakurleak gehiago pentsa dezan.
 - ☐ Era argi eta zehatzean.
- Zer ordenatan ageri da informazioa?
 - ☐ Ez da ordenan agertzen, nahasirik baizik.
 - ☐ Tokien arabera ordenaturik agertzen da.

2 Irakurri paragrafo hauek eta erantzun.

A


Era berean, kulturen arabera tatuajeak egiteko teknika ezberdinak erabili izan dira. Kultura tribal batzuek azala moztean errautsez, tintaz edo beste material batez zauria igurtziz egiten zituzten tatuajeak. Beste batzuek, animalien hezurrekin larruazala ziztatuz sortzen zituzten. Geroago, tintan orratzak bustiz marrazten zituzten, orain dela denbora gutxi arte erabili izan den teknika. Gaur egun, leku espezializatuak daude gorputza apaindu ahal izateko;

B

Piercing-a gorputzean zuloak egitearen jarduerari deitzen zaio. Gaur egun, jende askok ditu piercing-ak gorputzean: zilborrean, masailetan, betondoan, sudur alboetan edo sudur azpian... Moda kontua da egungoa, baina ez pentsa piercing-a gauza berria denik. Oso antzinatik dator.

- Horietako zein erantsiko zenioke hasierako testuari? Zergatik?

3 Pentsatu eta osatu zerrenda koadernoan. Zer beste erabili izan du gizakiak bere itxura edertzeko?



4 Aukeratu zerrendan bildutako edergarriren bat eta idatzi azalpen-testua, hauek kontuan hartuz.

- | | |
|--------------------|---|
| A. IDATZI | ➤ Idatzi burura etortzen zaizkizun ideiak. |
| B. BILATU | ➤ Bilatu informazioa dakizuna osatzeko. |
| C. ORDENATU | ➤ Ordenatu infromazio hori denboraren edo tokien arabera eta idatzi testua. |


1 Irakurri hiztegiko definizioak eta adierazi zein irudi dagokion bakoitzari.

begi

1. Ikusmenaren organoa.
2. Zenbait tresna eta jakik duten zuloa.
3. Kimua, landare jaioberria.

lepo

1. Burua eta enborra lotzen dituen gorputzaren zati mehea.
2. Gauza baten zati estu eta meheena.
3. Jantzietan lepoa inguratzen duen zatia.



2 Idatzi esaldiak goiko hitzen adiera bakoitzarekin.

3 Azaldu testuan nabarmendutako hitzen esanahia. Gero, idatzi horien beste adiera batzuk.

Soinketako ordua

Niri ez zait soinketa egitea gustatzen.

Enborra zurrun baino zurrunagoa dut eta ezin dut **gerria** tolestu. Baldar samarra naiz, egia esan. Eta gelan badago nitaz barre egiten duen mutil **kaiku** bat. Gaur, ordea, primeran egin ditut irakasleak agindutako ariketa guztiak: **arin** eta trebe ibili naiz. Ikustekoa izan da nire gelako mutil kaikuaren **aurpegia**! **Ahoa** zabal-zabalik zuela gelditu da.

HITZ POLISEMIKOAK

- Hitz polisemikoak **adiera bat baino gehiago duten hitzak** dira, hots, gauza bat baino gehiago adierazten dutenak:
 - **erre**: 1. Suaz kiskali. 2. Janaria labean prestatu. 3. Kea arnasaren bidez hartu.

Neure buruari begira

Neure buruari begira
bizitza pasa arren,
oraindik ez dakit
nor naizen.

Haizeari galdetu diot:

–Nor naiz ni?

Eta erantzunik ez dit eskaini.

–Ni nor naiz?

Ilargiari.

Eta izarrak lo harrarazten
jarraitu du kantari.

ANTTON KAZABON

Ispiluari, azkenik, galdetu diot
ni nor naizen.

Eta bihotzari begira jarri nau.

Orain, lagunak ikusten hasi naiz,
bat, bi, hiru, lau...



1 Irakurri olerkia eta erantzun.

- Olerkian ba al dago errimatzen duen hitzik?
- Zein hitz dira horiek?

2 Irakurri koplatoak eta osatu errimatzen duten hitzekin.



bidaia

Ni Iruñekoa naiz,
izena dut Ibai,
gustuko dut pilota,
futbola ere

bai

Bederatzi urteko
Laudioko Naia,
Afrikara egingo
nuke gaur .



3 Idatzi zeure burua aurkezteko koplatoa, goikoen antzekoa.

- Bilatu zure izenarekin errimatzen duten hitzak.
- Kontatu nongoa zaren, zenbat urte dituzun, zer duzun gustuko, nolakoa zaren...



1 Irakurri testua eta erantzun galderei.

W. Amadeus Mozart

Gaur egun eta bere garaian ere, musikari entzutesua izan zen Wolfgang Amadeus Mozart.

Salzburgen, Austrian, jaio zen 1756ko urtarrilaren 27an. Lau urte zituela klavikordioa jotzen zuen eta abesti txikiak sortzen zituen. Sei urterekin pianojole aditua zen eta baita goi-mailako biolin-jolea ere. Adin horrekin, Europako gorteetan, errege-erreginen aurrean jotzen ibiltzen zen Mozart txikia.

Hamar urte bete zituenarako, sinfonia oso bat, beste zenbait pieza txiki eta opera bat eginak zeuzkan. Eta hamahiru urterekin bere hiriko *Kontzertmeister* edo kontzertu-maisua zen.

Miresgarria, ezta? Horrelakoa izan zen Mozart: jeinu handia txiki-txikitatik!



- Nor zen Wolfgang Amadeus Mozart?
- Zenbat urterekin hasi zen musika sortzen?
- Zein musika-tresna jotzen zituen? Nolakoak dira musika-tresna horiek?
- Deskribatu Mozar txikia, testuan eta irudian oinarrituz. Nolako itxura eta izaera zituen?

2 Idatzi koadernoan galdera hauen erantzunak.

- Zer ekarri dio aitak amari? (gona gorria)
- Nork ekarri dio gona gorria amari? (aitak)
- Nori ekarri dio aitak gona gorria? (amari)

3 Ordenatu hitzak eta osatu esaldiak

- ez / nahi / Anek / joan / eskolara / du.
- egia. / Hori / omen / da / ez
- Jone / ezertaz / ez / da / kexatzen. / inoiz

4 Kopiatu esaldi hauek koadernoan eta jarri letra larria behar den tokietan.

- mozar musikaria salzburg hirian jaio zen, austrian.
- joanes gitarra jotzen ikasten ari da areetako andres isasi musika-eskolan.
- abeslariak loretxoa eta aguz zuberoka abesti ezagunak kantatu zituen.



★ **5** Entzun *Musika-izarrak* elkarrizketa eta adierazi esaldi hauek egia ala gezurra diren. 🔊

- Mutikoak biolina jotzen ikasi nahi du, oskestra handi batean jotzeko.
- Osabak esan dio beranduegi dela biolina ikasten hasteko.
- Biolina jotzen ikasteko, musika-eskolara joan behar omen da; trikitia jotzeko, ordea, ez.
- Neskari biolina gustatzen zaio, baina nahiago du rock talde batean jo.
- Osabak melomanoak direla esan die.
- Musikarien munduan erabiltzen den hitz irangarri bat da hori.



6 Aldatu esaldiak *jo* aditzak bertan duen adieraren arabera.

kolpatu

soinu egin

kalkulatu

joan

- Bat-batean, iratzargailuak *jo* zuen eta esnatu egin nintzen.
- Jolasean ari ginela, nahi gabe makilaz *jo* ninduen buruan.
- Irakaslearengana *jo* dugu, laguntza eske.
- Behetik jota, berrogei euro balio du baloi horrek.

7 Bilatu musika-tresna hauetako bati buruzko informazioa eta idatzi azalpen-testu bat.

- Biolina.
- Gitarra elektrikoa.

ASKOTARIKO ADIMENAK

8 Hausnartu eta, inon informazioa bilatu gabe, idatzi zerrenda batean orkestra batean egoten diren musika-tresnen izenak. Gero, konparatu zure ikaskideek idatzi dituztenekin eta erantzun.

- Zenbat izen idatzi dituzu ikaskideen aldean, asko ala gutxi?
- Ezagutzen al zenituen besteek aipatu dituzten musika-tresnak?



9 Musika gustuko al duzu? Nolako musika duzu gustukoen?